KUTXABANK TXARTELAK SUSTATZEKO KANPAINA:

"GAUBEA-AÑANA 2018"

KUTXABANK S.A.k (aurrerantzean, Kutxabank), IFK: A95653077 eta egoitza soziala Bilbon, Kale Nagusiko 30-32 zenbakietan, sustapen kanpaina bat egin nahi du adinez nagusiak eta pertsona fisikoak diren bere bezero guztien artean, Araban bizi direnak eta oinarri hauetan jasotako baldintzak betetzen dituztenak.

Sustapenaren helburua publizitatea eta sustapena egitea da; hortaz, parte hartzaileentzat ez du inolako gainpreziorik edo tarifa osagarririk izango. Kanpaina honetan eskainiko den pizgarria zozketa bat izango da. Irabazlea eskuz aukeratuko da, zenbaki bat ausaz aterata. Hona hemen azalpena:

1. Araban bizi eta adinez nagusiak diren pertsona fisikoek **parte hartu** ahal izango dute, Kutxabankeko bezero badira, eta sustapena egiten den bitartean honako baldintza hauek betetzen badituzte:

a. Gutxienez finantza txartel aktibo hauetakoren baten (**partikularren contactless txartel aktiboak)** titularra izatea:
Visa Classic, Visa Oro, Visa Oro Dual, Visa Oro Profesional, Visa Dual, Visa Dual Profesional, Visa Dual K26, Visa Dual K26+, Visa Dual 100%, Visa Dual Nagusi, Sticker Dual/Crédito, Pulsera Dual/Crédito, Visa Nakar, Visa Partaide, Visa Dual R.Sociedad, Visa Dual Debit, Visa Dual Debit K26, Visa Dual Debit K26+, Visa Dual Debit 100%, Visa Dual Debit Nagusi, Visa Dual Debit R.Sociedad, Visa Debit, Visa Debit Profesional, Visa Debit K26, Visa Debit K26+, Visa Debit 100%, Visa Debit Nagusi, Visa Debit R.Sociedad , Sticker Débito eta Pulsera Débito.

b. 2018ko maiatzaren 7tik 2018ko ekainaren 30era gutxienez erosketa bat egitea aurreko paragrafoan aipaturiko txartelen batekin, parte hartzailea titularra izanik, Gaubeako eta Añanako udalerrietako dendetan.

c. Kutxabankek zozketatik kanpo utz ditzake erakundean mugaeguneratutako saldo zordunak dituzten pertsona fisikoak, datuak babesteko araudiaren arabera publizitaterik ez jasotzeko eskaera egiten dutenak edo jakinarazpen komertzialik jaso nahi ez duten bezeroen fitxategi komunen batean daudenak.

d. Kutxabankeko langileak sustapen honetatik kanpo gelditukо dira.

2. Kanpaina hau arautzen duten **arauak** hemen jasota daude eta www.kutxabank.es webgunean kontsulta daitezke

Kanpainan parte hartzen duen orok oinarri hauek onartzen ditu, bai eta oinarri hauek interpretatzeko orduan sor litekeen edozein gatazka konpontzeko Kuntxabankek erabiltzen duen irizpidea ere. Kutxabankek sustapenaren oinarriak bete ez dituzten erabiltzaileak deskalifikatu ahal izango ditu, eta Kutxabankek ez du horren aurrean inolako erantzukizunik izango. Kutxabankek kanpaina honetako baldintzak aldatzeko eskubidea izango du, kasuan kasuko baimen edo jakinarazpen administratiboak egin ondoren.

Kutxabankek parte hartzeko eta saria emateko mekanika aldatzeko eskubidea izango du, betiere inpartzialtasun osoa ziurtatuz. Kutxabankek, ezinbesteko arrazoiengatik, sustapeneko objektua edo saria aldatu ahal izango du, balio berdina eta antzeko ezaugarriak dituen beste batengatik, edota zozketa bertan behera utzi, parte hartzaileei gorabehera horren berri emanda.

3. Kanpainaren datak: 2018ko maiatzaren 7tik 2018ko ekainaren 30era, bi egun horiek barne.

Zozketa notarioaren aurrean egingo da 2018ko uztailaren 16an, edo gertuko data batean, zozketa ezin bada egun horretan egin.

4. Sariak. 15 pack "Escapada Deliciosa" Smartbox, hauxe da, gau 1 gosariarekin edo gosari eta afariarekin 2 lagunentzat.

5. Zozketaren mekanika.

Parte hartzaile bakoitzari "aukera" bat emango zaio Gaubea eta Añana udalerrietan dauden establezimenduetan egindako erosketa bakoitzeko, betiere 1. puntuan jasota daudenetako txartel batekin ordaindu bada.

Fitxategi informatikoa egingo da 1. puntuan aipatutako baldintzak betetzen dituzten bezeroen izenekin, txartelaren zenbakiaren araberako hurrenkeran eta bezero bakoitzari eman zaion "aukeraren" zenbakiarekin.

"Aukerak" 1 zenbakitik aurrera zenbatuko dira, hurrenez hurren.

Zozketa egiteko, Notarioak zenbaki bat aterako du ontzitik, 1 zenbakiaren eta esleitu den azken zenbakiaren artekoa. Zenbaki hori izango da saritutako lehenengo aukera.

Gainerako aukera sarituak zein diren jakiteko, bai eta erreserban geratuko direnak ezagutzeko ere, prozedura informatikoen bidez, lortutako zenbakiari honako hau batuko zaio: fitxategian dauden erregistratutako aukera guztien batura zati sari guztien kopurua (15) gehi erreserba kopurua (75); hau da, zenbaki saritua zati 90 egingo da, eta lortutako zatidura beherantz biribilduko da (dagokion zenbaki osoa, dezimalak kenduta), aukera saritu guztiak lortu arte (15 aukera metodo honen bidez), eta ondoren eragiketa bera egingo da erreserba zenbakiak eskuratzeko (75). Ondorio horietarako, fitxategiaren bukaerara iritsiko balitz, kalkuluak erregistratutako lehenengo aukeratik aurrera jarraituko luke, saritutako (15) eta erreserban geratuko diren (75) zenbaki guztiak lortu arte. Kasu honetan erreserbako zenbakiak lortzen diren azkenak izango dira.

Pertsona bakoitzak sari bakarra lor dezake. Pertsona bat behin baino gehiagotan saritua bada, zozketan aukera bat baino gehiago daukalako, saritutako lehenengo aukeraren saria besterik ez du eskuratuko.

Sareen eta erakundeen arteko informazioaren komunikazio trukerako sistemen bidez, fitxategi informatikoak prestatzen diren egunean Kutxabanki jakinarazi zaizkion erosketak izango dira balioa izango dutenak.

6. Sarituak saria onartzen duen unean, bere datu pertsonalak erabili eta bere fitxategietan sartzeko baimena ematen dio Kutxabanki. Bere izen-abizenak edota irudia edozein bitarteko, euskarri edo formatutan egiten den edozein sustapen edo publizitate ekintzatan erabili eta zabaltzeko helburuarekin osatuko da fitxategi hori. Erabilpen horrek ez dio bezeroari ordainsaririk edo etekinik eskuratzeko inolako eskubiderik emango, oinarri hauen arabera lortutako sariaz aparte. Baimen hori ematen ez bada, sariari uko egingo zaio.

7. Ondorio guztietarako (baita zerga alorrekoetarako ere), sariaren jakinarazpena gutun, telefono, posta elektroniko edo Kutxabankek erabakitzen duen beste edozein moduren bidez egingo da. Sustapen honetarako sariak ezin izango dira bezeroak eskatuta aldatu, moldatu edo konpentsatu, ez eta haien balioa dirutan eskatu ere. Edozein arrazoirengatik, 2018ko uztailaren 16tik hasi eta 15 egun naturaleko epean Kutxabank ezin bada sarituarekin harremanetan jarri, saria automatikoki esleituko zaie erreserbei, haien hurrenkeraren arabera.

Sarituak sariari uko egin ahal izango dio idatziz, jakinarazpena jaso eta hurrengo 15 egun naturaleko epean, baina ezin izango dio saria beste pertsona bati eman. Kasu horretan, zozketaren hurrengo erreserbari emango zaio saria.

8. Kutxabankek erabakiko du bezeroei saria nola eta non banatu. Bezeroak sariari uko egiten badio, ez du inolako ordainik jasoko.

9. Inolako jakinarazpenik jasotzen ez bada, saria onartzeko nahiz atzera botatzeko, eta bezeroari 7. oinarrian aipatutako jakinarazpena bidali zitzaionetik 15 egun natural igaro badira, sariari uko egin diola ulertuko da. Hala bada, Kutxabankek sariarekin nahi duen bezala jarduteko eskubidea izango du.

10. Sariari Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga ezarriko zaio edo, hala badagokio, Ez Egoiliarren Errentaren gaineko Zerga, eta zerga horien edo aplika dakizkiokeen beste edozeinen araudietan ezarritako obligazioak bete beharko dira. Zerga alorreko kontuetarako, sari bakoitza sarituarena izango da, eta hari egingo zaizkio dagozkion kontuko atxikipenak eta diru sarrerak.

11. Saria jaso ahal izateko, sustapenean parte hartzen duen bezeroak egunean izan behar ditu Kutxabankekiko ordainketak eta egindako eragiketa guztiak. Hortaz, ez du zorrik izan behar Kutxabankekin.

12. Kutxabankek sustapena eten eta bertan behera utzi ahal izango du, sustapenaren edo/eta zozketaren mekanikari arazo informatikoren batek eragiten badio edo hornitzaileek, erabiltzaileek edo hirugarrenek eragindako eta Kutxabanken borondatearekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik.

Bilbon, 2018ko martxoaren 27an.